

Izena: _____ Data: _____

DENBORA NEURTZEN

Gizakiaren aspaldiko kezka denbora neurtzea izan da eta helburu horrekin hainbat ordu eman ditu.



Greziarrek buztinezko ontzi batean marka batzuk jarri, azpitik zulotxo egin eta urez betetzen zuten. Ontzia husten zen bitartean, markak irakurriz, denbora neurtzen zuten.

Erromatarrek eta arabiarrek eguzki-erlojua erabili zuten, eta harea-erlojua ere garai hartakoa zen. Harea-erlojuak, tamainaren arabera, denbora tarte luzeagoak edo laburragoak neur ditzake.



Geroago, orratz-erlojuak asmatu ziren. Ezagunetarikoak, agian, kuku-erlojuak dira.

Ezin ditugu ahaztu gaur egungo erloju digitalak. A ze nolako buruhaustea ditugu, andereñoak erloju fitxak bidaltzen dituenen!

1. Elkartu erloju mota bakoitza bere izenarekin.



Ur-erlojua



Eguzki-erlojua



Kuku-erlojua



Erloju digitala

2. Esan Egia ala Gezurra diren ondorengo esaldiak:

- Greziarrek eguzki-erlojuak asmatu zituzten.
- Kuku-erlojuak orrazdunak dira.
- Erloju digitalak arabiarren garaian hasi ziren erabiltzen.
- Eguzki-erlojuak harea erabiltzen dute.

3. Ordenatu erloju hauek zaharrenetik modernoetara.

- Orratz-erlojua
- Harea- erlojua
- Digitalak
- Ur-erlojua
- Eguzki-erlojua.

4. Nortzuk erabili zituzten eguzki-erlojua?

5. Azaldu, zure hitzez, denbora neurtzeko nola egiten zuten greziarrek.
